Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Eneko Andueza Lorenzo jauna.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

D. Itoitz García-Antón Lorenzo jauna.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamaseiko otsailaren hogeita bederatzian, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen ohiko bileran, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian esandako jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veintinueve de febrero de dos mil dieciséis y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Ez dira azaldu Telleria Echeverria, López de Guereñu Urisabel y Garate Larrañaga jaun-andreak.

No asisten los Sres/as. Telleria Echeverria, López de Guereñu Urisabel y Garate Larrañaga.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren lehenengo atala irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

<u>1. ATALA</u>

<u>2015eko abenduaren 28an eta 2016ko urtarrilaren 25ean Udalbatzak egindako bilkurei dagozkien akta-zirriborroak onartzea.</u>

<u>PUNTO 1º</u>

<u>Aprobación de los borradores de acta correspondientes a las sesiones de Pleno Municipal celebradas el 28 de diciembre de 2015 y el 25 de enero de 2016.</u>

2015eko abenduaren 28ko eta 2016ko urtarrilaren 25eko bilerei dagozkien akten zirriborroak botazioan jarrita, ondorengo emaitza honekin ontzat eman dituzte eta akta moduan utzi.

Sometidos a votación los borradores de Actas correspondientes a las sesiones de 28 de diciembre de 2015 y el 25 de enero de 2016, se aprueban con el siguiente resultado, siendo

elevadas a actas:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE), Juez Garmendia, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE), Juez Garmendia, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

2. ATALA Mezuak eta jakinarazpenak.

PUNTO 2º Despachos y Comunicaciones.

Alkatetzaren Dekretu hauen berri eman da:

Se da cuenta de los siguientes Decretos de Alcaldía:

“ALKATETZAREN DEKRETUA

“DECRETO DE ALCALDIA

UDAL AURREKONTUKO KREDITU GAIKUNTZAREN AURRENEKO ESPE-

PRIMER EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITOS DEL PRE-

DIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ondoren zehaztuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez 2016. ekitaldirako Udal Aurrekontuaren partidetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak.

HAUXE ERABAKI DUT

Udal aurrekontuaren kreditu gaikuntzaren aurreneko espedientea onartzea. Hona hemen horren zenbatekoak:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap Izendapena | Euroak |
|---|---|
| 8 Finantza aktiboak | 344.149,72 |
| Guztira gehikuntzen adina | 344.149,72 |

SUPUESTO MUNICIPAL

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2016,

RESUELVO

la aprobación del primer expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto Municipal, cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít Denominación | Euros |
|---|---|
| 8 Activos financieros | 344.149,72 |
| TOTAL igual a los aumentos | 344.149,72 |

/

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

Kap Izendapena Euroak

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 249.071,49 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 95.078,23 |

Kredituen Gehikuntza guztira 344.149,72

Eibarren, 2016ko urtarrilaren 28an

ALKATEAK,- Miguel de los Toyos Nazabal."

"ALKATETZAREN DEKRETUA

"JUAN BAUTISTA GISASOLA" HERRIKO MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUKO AURREKONTUAREN KREDITU GAIKUNTZEN AURRENEKO ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ondoren zehaztuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez "Juan Bautista Gisasola" Udal Musika Eskolaren Patronatuaren 2016. ekital-

II. CREDITOS EN AUMENTO

Capít Denominación Euros

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Gastos Personal | 249.071,49 |
| 4 | Transferencias corrientesl | 95.078,23 |

TOTAL Créditos en aumento 344.149,72

Eibar, 28 de enero de 2016

EL ALCALDE,- Miguel de los Toyos Nazabal."

"DECRETO DE ALCALDIA

PRIMER. EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO DEL PATRONATO ESCUELA PUBLICA DE MUSICA "JUAN BAUTISTA GISASOLA"

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos

diko Aurrekontuaren partidetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak.

HAUXE ERABAKI DUT

“Juan Bautista Gisasola” Herriko Musika Eskolako Patronatuaren Aurrekontuko Kreditu Gaikuntzen Aurreneko espedientea hemen azpian aipatzen diren zenbatekoetan onartzea:

LABURPENA KAPITULUKA

I. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap Izendapena | Euroak |
|---|---|
| 1 Pertsonalaren Gastuak | 9.755,65 |
| GUZTIRA | 9.755,65 |

II. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap Izendapena | Euroak |
|---|---|
| 4 Transferentzia Arruntak | 9.755,65 |
| GUZTIRA | 9.755,65 |

Eibar, 2016-01-29
Alkateak,
Miguel de los Toyos Nazabal.”

consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto del Patronato Escuela Pública de Música “Juan Bautista Gisasola” para el Ejercicio 2016,

RESUELVO

La aprobación del Primer Expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto del Patronato Escuela Pública de Músca “Juan Bautista Gisasola”, cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít Denominación | Euros |
|---|---|
| 1 Gastos de personal | 9.755,65 |
| TOTAL | 9.755,65 |

II. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít Denominación | Euros |
|---|---|
| 4 Transferencias Corrientes | 9.755,65 |
| TOTAL | 9.755,65 |

Eibar, 29-01-2016
El Alcalde,
Miguel de los Toyos Nazabal.”

ALKATETZAREN DEKRETUA

"EIBARKO KIROL PATRONATUAREN AURREKONTUAREN KREDITU GAIKUNTZEN AURRENEKO ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ondoren zehaztuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez Kirol Patronatuaren 2016. ekitaldiko Aurrekontuaren partidetan izendatutako kredituak ez direlako behar bestekoak,

HAUXE ERABAKI DUT:

Eibarko Kirol Patronatuaren Aurrekontuko Kreditu Gaikuntzen Aurreneko espedientea hemen azpian aipatzen diren zenbatekoetan onartzea:

LABURPENA KAPITULUKA
I. KREDITUEN GEHIKUNTZA

DECRETO DE ALCALDIA

"PRIMER EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITO DEL PRESUPUESTO DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE EIBAR

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto para el Ejercicio 2016,

RESUELVO:

la aprobación del Primer Expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes de Eibar, cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS
CREDITOS EN AUMENTO

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonalaren Gastuak | 16.125,66 |
| GUZTIRA | | 16.125,66 |

II. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia Arruntak | 16.125,66 |
| GUZTIRA | | 16.125,66 |

Eibar, 2016-01-29
Alkateak,
Miguel de los Toyos Nazabal."

"ALKATETZAREN DEKRETUA

SAN ANDRES NAGUSIEN EGOITZA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUAREN KREDITU GAIKUNTZEN AURRENEKO ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptu hauei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez San Andres Nagusien Egoitza Fun-

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 16.125,66 |
| TOTAL | | 16.125,66 |

PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferencias Corrientes | 16.125,66 |
| TOTAL | | 16.125,66 |

Eibar, 29-01-2016
El Alcalde,
Miguel de los Toyos Nazabal."

"DECRETO DE ALCALDIA

PRIMER EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITO DEL PRESUPUESTO DE LA FUNDACION PUBLICA RESIDENCIA DE ANCIANOS SAN ANDRES

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se

dazio Publikoaren 2016. ekitaldiko Aurrekontuaren partidetan izendatutako kredituak ez direlako behar bestekoak,

HAUXE ERABAKI DUT:

San Andrés Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuko Kreditu Gaikuntzen Aurreneko espedientea hemen azpian aipatzen diren zenbatekoetan onartzea:

LABURPENA KAPITULUKA
I KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap Izendapena | Euroak |
|---|---|
| 1 Pertsonalaren Gastuak | 65.477,04 |
| GUZTIRA | 65.477,04 |

II. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap Izendapena | Euroak |
|---|---|
| 4 Transferentzia Aruntak | 65.477,04 |
| GUZTIRA | 65.477,04 |

Alkateak,
Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto para el Ejercicio 2016,

RESUELVO:

la aprobación del Primer Expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andres, cifrado en las siguientes cantidades :

RESUMEN POR CAPITULOS
I. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít Denominación | Euros |
|---|---|
| 1 Gastos de personal | 65.477,04 |
| TOTAL | 65.477,04 |

II. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít Denominación | Euros |
|---|---|
| 4 Transferencias Corrientes | 65.477,04 |
| TOTAL | 65.477,04 |

El Alcalde,
Miguel de los Toyos Nazabal."

El Pleno se da por enterado.

Alkatetzak 2016ko otsailaren 3an eman zuen Dekretuaren berri eman du Idazkariak, Torrekuako tunelean bideo-zaintzako kamerak jartzeari buruzko dekretua. Hori dela eta, ondoko erabaki hauek hartu direla azaldu du:

"Lehenengoa. Trafikoaren kontrola, zaintza eta diziplinarako bideokamera eta irudiak erreproduzitzeko sare bat instalatzea eta erabiltzea, apirilaren 16ko 596/1999 EDren xedapen gehigarri bakarrak ezarritako baldintza horiei zorrotz jarraikiz. Zaintza-lana bide edo/eta bidegurutze hauetan egingo da:

- 1. kamera: Torrekuako tunelaren sarreran.
- 2., 3., 4. eta 5. kamerak: Torrekuako tunelaren barruan.
- 6. kamera: Torrekuako tunelaren irteeran.

Bigarrena. Segurtasun neurriak. Kamera horiek hartu eta dekretu honen bidez sortzen den fitxategi automatizatuan gordeko diren irudi horiek zaintzeak, gordetzeak, eta, behar izanez gero, suntsitzeak bete egiten dute abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak ezarritako segurtasun neurriak eta eskakizunak, izaera pertso-

Da cuenta la Secretaria del Decreto de Alcaldía dictado el 3 de febrero de 2016, en relación a la instalación de cámaras de video-vigilancia en el túnel de Torrekua, indicando que en base al mismo se ha acordado lo siguiente:

"Primero. La instalación y uso de una red de videocámaras y de reproducción de imágenes para el control, vigilancia y disciplina del tráfico, y sujeta a las estrictas condiciones fijadas por la disposición adicional única del RD 596/1999, de 16 de abril. La vigilancia se extenderá a las siguientes vías y/o intersecciones:

- Cámara 1: entrada Túnel Torrekua.
- Cámaras 2, 3, 4 y 5: interior Túnel Torrekua.
- Cámara 6: salida Túnel Torrekua.

Segundo. Medidas de seguridad. La custodia, conservación y destrucción, en su caso, de las imágenes captadas por las cámaras, y que se integra en el fichero automatizado que por el presente decreto se crea, cumple las medidas de seguridad y exigencias establecidas en el Real Decreto 1720/2007, de 21 de dici-

naleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onartzen duen errege-dekretua. Udaltzaingoa izango da datuok ikusteko eta ezabatzeko eskabideak ebazteko ardura izango duen organoa.

Hirugarrena. Ondorengo fitxategi hau sortzea, zeinaren egituran indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrean zehaztu behar diren alderdi guztiak jasotzen diren.

- Fitxategiaren izena: *Udalaren eskuduntzako errepideetako trafikoaren bideozaintza: Torrekuako tunela*.
- Deskripzioa: Kontrolpean dagoen errepidetik –Torrekuako tunela– oinez doazen pertsonen, ibilgailuen eta ibilgailuen matrikulak jasotzen dituzten irudi digital multzoa.
- Fitxategiaren arduraduna: Eibarko Udala, (P2003100A), Udaltzaingoaren Buruzagitza, Untzaga plaza 1, 20600 Eibar. Tel.: 943 70 84 24. Faxa: 943 70 84 25. Helbide elektronikoa: udaltzaingoa@eibar.eus.
- Eskubideez baliatzeko atala edo zerbitzua (sarbidea, ezereztea). PEGORA, Herritarren zerbitzurako

embre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, a la vez que el órgano encargado de la resolución de solicitudes de acceso y cancelación será la Policía Municipal.

Tercero. Proceder a la creación del siguiente fichero en cuya estructura se recogen los aspectos de obligada especificación conforme a la legalidad vigente:

- Nombre del Fichero: *Vídeo-vigilancia del tráfico rodado en vías de competencia municipal-Túnel de Torrekua*.
- Descripción: conjunto de imágenes digitales de personas usuarias, matrículas y vehículos que circulan por la vía objeto de control, Túnel de Torrekua.
- Responsable del fichero: Ayuntamiento de Eibar (P2003100A), Jefatura de la Policía Municipal, Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar. Tlfo: 943 70 84 24. Fax: 943 70 84 25. Email: udaltzaingoa@eibar.eus.
- Unidad o servicio para el ejercicio de derechos (acceso, cancelación): PEGORA, Oficina de Ser-

bulegoa. Untzaga plaza, 1 (etxabea edo beheko solairua), 20.600 Eibar. Tel.: 943 70 84 00. Faxa: 943 70 84 16. Helbide elektronikoa: pegora@eibar.eus.

- Segurtasun-maila: beherena.
- Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuta dauden izaera pertsonaleko datu-moten deskripzioa: Identifikatzeko datuak: irudiak.
- Fitxategiaren helburua: Udal eskuduntzako bide edo errepideetan –Torrekuako tunela– trafikoaren segurtasunerako eta kontrolerako irudiak grabatzea eta tratamendu automatizatua ematea.
- Aurreikusitako erabilerak: Trafikoaren kontrol, zaintza eta diziplina.
- Fitxategiaren eraginpean dauden pertsonak edo kolektiboak: Kontrolpean dagoen errepidetik –Torrekuako tunela– doazen pertsonak, ibilgailuak edo gidariak; kameren grabazio-eremu barruan daudenak.
- Datuen jatorria: interesatua bera.
- Datuak biltzeko erabilitako bidea: grabazio-kamerek jasotako irudiak.
- Datuak lortzeko erabilitako euskarria: grabatzeko bideokamerak.

vicio a la Ciudadanía. Untzaga plaza 1 (planta baja), 20.600 Eibar. Tlfo: 943 70 84 00. Fax: 943 70 84 16. Email: pegora@eibar.eus.

- Nivel de Seguridad: Básico.
- Estructura básica y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos en el fichero: Datos de carácter identificativo: imagen.
- Finalidad del fichero: grabación y tratamiento automatizado de imágenes con finalidad de seguridad y control del tráfico rodado en vías de competencia municipal - Túnel de Torrekua.
- Usos previstos: control, vigilancia y disciplina del tráfico.
- Personas o Colectivos afectados: personas, vehículos y conductores/as que transiten por la vía objeto de control, Túnel de Torrekua, y estén dentro del ámbito de grabación de las cámaras.
- Procedencia de los datos: el propio interesado/a.
- Procedimiento de recogida: imágenes captadas por las cámaras de grabación.
- Soporte utilizado para la obtención: cámaras de grabación de

* Datuak beste inori lagatzea edo komunikatzea: segurtasuneko indar eta kidegoari eta organo judizialei.

vídeo.

* Cesiones o comunicaciones a terceros: Fuerzas y cuerpos de seguridad y órganos judiciales.

Laugarrena: Dekretu hau Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitara ematea.

Cuarto: Publicar el correspondiente Decreto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Bosgarrena: Dekretua GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoan, argitaratzen den egunetik 30 eguneko epearen barruan, fitxategi hori Datuak Babesteko Euskal Bulegoan inskribatuko da.

Quinto: Una vez publicado el correspondiente Decreto en el BOG, inscribir en la Agencia Vasca de Protección de Datos en el plazo de 30 días contados a partir de dicha publicación el fichero de referencia.

Seigarrena: Udalaren segurtasun dokumentua eguneratzea."

Sexto: actualizar el documento de seguridad del Ayuntamiento."

Halaber, Alkatetzak otsailaren 4an eta 10ean eman zituen Dekretuen berri eman da. Aurreneko Dekretuan, Alkatetzak, bere egunean, Telleria Echeverria andreari eskuordetzan eman zizkion hirigintza arloko egiteko haiek berriro Alkatetzak hartzen ditu bere gain; bigarren Dekretuan, Hirigintza Batzorde Aholkulari-burutza Alberto Albistegui Zamacola jaunaren eskuetan uzten du.

Se da cuenta asimismo de los Decretos de Alcaldía de 4 y 10 de febrero respectivamente, que recogen la reasunción por la Alcaldía de las atribuciones en su día delegadas en la Sra. Telleria Echeverria en materia de urbanismo y la delegación de la Presidencia de la Comisión Asesora de Urbanismo en D. Alberto Albistegui Zamacola.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

"DECRETO DE ALCALDIA

Alkatetzaren 2015eko ekainaren 22ko Dekretuz Batzorde Aholkularien eraketa ebatzi nuen, besteak beste Hirigintza Batzorde Aholkulariarena, eta batzorde-buru kargua Ana Telleria Echeverria andrearen eskuetan utzi nuen, eskuordetzan.

Por Decreto de Alcaldía de 22 de junio de 2015 resolví la constitución de las Comisiones Asesoras, entre ellas la Comisión Asesora de Urbanismo, y delegué la Presidencia de la misma en Dña. Ana Telleria Echeverria.

Telleria andrea gaixorik dagoenez, honen bitartez HAUXE EBAZTEN DUT:

Dada la situación de enfermedad de la Sra. Telleria, por la presente RESUELVO:

Hirigintza Batzorde Aholkulariaren batzorde-buru kargua Alberto Albistegui Zamacola jaunaren esku uztea eskuordetzan.

Delegar la Presidencia de la Comisión Asesora de Urbanismo en D. Alberto Albistegui Zamacola.

Eibarren emana, bi mila eta hamaseiko otsailaren hamarrean.

Dado en Eibar a diez de febrero de dos mil dieciséis.

ALKATEAK,
Miguel de los Toyos Nazabal."

EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal."

"ALKATETZAREN DEKRETUA.

"DECRETO DE ALCALDIA

2015eko ekainaren 22an Alkatetzak Dekretu hau eman zuen:

El 22.06.2015 se dictó el siguiente Decreto de Alcaldía:

*"ALKATETZAREN DEKRETUA*

*"DECRETO DE ALCALDIA*

*Udal berria eratu denez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluak eta Toki Erakundeetako Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juri-*

*Constituido el nuevo Ayuntamiento y en aplicación de las atribuciones que me son deparadas por el artículo 21.3 de la Ley Reguladora de las Bases del Régi-*

dikoari buruzko Erregelamenduaren 52. artikuluen arabera,

men Local y 52 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales,

HAUXE EBATZI DUT:

DISPONGO:

AURRENA: Ondokoak izendatzea Tokiko Gobernu Batzarreko kide:

PRIMERO: Nombrar como miembros de la Junta de Gobierno Local a los siguientes concejales/as.

Alberto Albistegui Zamacola
Pedro Escribano Ruiz de la Torre
Ana Telleria Echeverria
Arcadio Benitez Dávila

Alberto Albistegui Zamacola
Pedro Escribano Ruiz de la Torre
Ana Telleria Echeverria
Arcadio Benitez Dávila

BIGARRENA: Tokiko Gobernu Batzarrari ondoren aipatuko ditudan ahalmen hauen eskuordetza egiten diot, baita Gobernu Batzarrak har ditzakeen erabakien kontra sar litezkeen berrazterketa-errekurtsoei ebazpena emateko ahalmena ere.

SEGUNDO: Delegar en la referida Junta de Gobierno Local las siguientes atribuciones así como la resolución de los recursos de reposición contra los acuerdos que la misma adopte en virtud de las atribuciones delegadas:

1.- Udal zerbitzuak eta obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea; udal zerbitzuen lizentziak edo baimenak ematea, edo, Udalak berak arautzekoak izan baina Udalbatzaren eskumenekoak ez direnak arautzea eta ekintzak edo ekitaldiak antolatzeko erakundeei zerbitzuak eskaintzea.

1.- Dirigir, inspeccionar e impulsar los servicios y obras municipales, así como concesión de autorizaciones y licencias de los servicios municipales o de regulación municipal que no sean competencia del Pleno Municipal y las prestaciones de servicios a entidades para organización actos.

*2.- Onartutako aurrekontuaren kudeaketa ekonomikoa garatzea.*

*2.- Desarrollo de la gestión económica del Presupuesto aprobado.*

*3.- Gastuak egiteko erabakiak hartzea horiek 18.000 eurotik gorakoak direnean, betiere administrazio-kontratazio espedienteei buruzkoak ez direnean.*

*3.- Disposición de gastos cuando su cuantía exceda de 18.000 € y no sean relativos a expedientes de contratación administrativa.*

*4.- Ordainketen luzapenak ematea.*

*4.- Aplazamientos de pago.*

*5.- Udalbatzaren eskumenekoak ez diren diru-laguntzak eta bestelako laguntzak ematea.*

*5.- Subvenciones y ayudas que no sean de competencia del Pleno Municipal.*

*6.- Udalbatzari ez dagozkion ondare-erantzukizuneko erreklamazioak ebaztea.*

*6.- Reclamaciones de responsabilidad patrimonial que no sean competencia de Pleno Municipal.*

*7.-Lan-eskaintza edo enplegu-eskaintza langile-zerrendaren arabera onartzea.*

*7.- Aprobación de la oferta empleo conforme a plantilla.*

*8.- Langileak aukeratzeko oinarriak onartzea.*

*8.- Aprobación de las bases de selección de personal.*

*9.- Langileak izendatzea eta lan-kontratuak egitea.*

*9.- Nombramiento de personal y contrataciones laborales.*

*10.- Langile-zerrendan edo lanpostuen zerrendan aldaketarik ez badakarte, norbanakoak lanpostuei atxikitzea.*

*10.- Adscripciones individuales a puestos si no implican modificación de plantilla o de la relación de Puestos de Trabajo.*

*11.- Soldata-osagarriak finkatzea; ez finkoak, ez aldizkakoak.*

*11.- Fijación de retribuciones complementarias no fijas ni periódicas.*

12.- Lan-baldintzak betetzea: lizentziak, soldata-aurrerapenak, lan utzialdiak, oporraldiak edo ikastaroak.

12.- Cumplimiento de las condiciones de trabajo tales como licencias, anticipos, excedencias, vacaciones o cursos.

13.- Bateragarritasunen aitorpena egitea.

13.- Reconocimiento de compatibilidades.

14.- Langileei zigorrak edo zehapenak ezartzea, kalera botatzea eta zerbitzutik kentzea izan ezik.

14.- La imposición de sanciones personal, salvo despido y separación de servicio.

15.- Udalbatzari ez dagozkion planeamendurako tresnak onartzea.

15.- Aprobación instrumentos planeamiento que no corresponden al Pleno Municipal.

16.- Hirigintza-kudeaketarako eta urbanizazio-proiektuetarako tresnak onartzea.

16.- Aprobación instrumentos de gestión urbanística y proyectos urbanización.

17.- Aurri-aitorpenak egitea, berehalako aurri-aitorpenak izan ezik.

17.- Declaración de ruina, excepto declaración de ruina inminente.

18.- Obra eta hirigintza lizentziak ematea, “obra txikien jakinarazpena eta "tramite laburreko lizentzia" izeneko prozedurak izan ezik.

18.- Otorgamiento de licencias de obras y urbanísticas, excepto las objeto de los procedimientos denominados “comunicado obra menor" y “licencia de trámite abreviado”.

19.- 18.000 eurotik gorako ondasunak erostea, betiere, udalbatzaren eskumenekoak ez badira.

19.- Adquisición de bienes inmuebles superiores a 18.000 € y que no sean competencia de Pleno Municipal.

*20.- Aurrekontuan aurreikusitako higiezinen besterenganatzeak egitea, betiere udalbatzaren eskumenekoak ez badira.*

*20.- Enajenación de inmuebles prevista en el Presupuesto y que no sean competencia del Pleno Municipal.*

*21.- Altzariak besterenganatzea, balio historikokoak edo artistikokoak izan ezik.*

*21.- Enajenación de muebles salvo los declarados de valor histórico o artístico.*

*22.- Udalbatzaren eskumenekoak ez diren doako lokal lagapenak egitea.*

*22.- Concesiones gratuitas de locales que no sean competencia del Pleno Municipal.*

*HIRUGARRENA: Erregelamendu Organikoan Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak astean behin izango direla finkatuta dagoenez, Tokiko Gobernu Batzarrak egiteko eguna ostirala izatea erabakitzen dut, eguerdiko hamabietan; jaieguna balitz, hurrengo astearen lehenengo lanegunean egingo litzateke.*

*TERCERO: Fijada en el Reglamento Orgánico una periodicidad semanal de celebración de sesiones de Junta de Gobierno Local, determino los viernes a las doce horas la fecha y hora de celebración de sesiones de Junta de Gobierno Local, pasando al primer día hábil de la semana siguiente caso de coincidir en festivo.*

*Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko uztailaren 3an egingo du aurreneko bilkura.*

*La primera sesión que celebre la indicada Junta de Gobierno Local, será el día 3 de julio de 2015.*

*LAUGARRENA: Uztailaren 3tik aurrera izango ditu Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetzan eman edo bere esku utzi diren ahalmenak, erabaki hau aldatu edo atzera bota arte; Tokiko Gobernu Batzarrak horren ondorioz har ditzakeen erabakiak ahalmenok eta eskuordetzan haren esku utzi dituen jardute-sail honen bero-*

*CUARTO: La delegación de atribuciones en Junta de Gobierno Local tendrá efectos desde el 3 de julio hasta su modificación o revocación, y los acuerdos que adopte la Junta de Gobierno Local en virtud de estas atribuciones tendrán el mismo valor que las Resoluciones de este órgano delegante.*

*nen Ebazpenen balio bera izango dute.*

*BOSGARRENA: “Obra txikien jakinarazpena” eta “tramite laburreko lizentzia” izeneko prozeduren hirigintza lizentzien ebazpenak ematea eta egikaritza-aginduak ematea, Ana Telleria Echeverria andrearen esku uzten ditut; baita ebazpen horien kontra sar litezkeen berrazterketa errekurtsoen inguruko ebazpenak ematea ere.*

*QUINTO: Delegar la atribución de resolución de las licencias urbanísticas objeto de los procedimientos denominados “comunicado de obra menor” y “licencia de trámite abreviado” así como órdenes de ejecución en Dª Ana Telleria Echeverria, así como la resolución de los recursos de reposición que contra dichas resoluciones pudieran interponerse.*

*Eskuordetze honek 2015eko urte honetako ekainaren 22tik aurrerako ondorioak izango ditu.”*

*Esta delegación tendrá efectos desde el 22 de junio del presente.”*

Telleria andrea gaixorik dagoenez, honen bitartez

Dada la situación de enfermedad de la Sra. Telleria, por el presente

HAUXE EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Bere egunean Telleria Echeverria andreari eskuordetutako eskumen haiek nire gain hartzea.

Reasumir las referidas atribuciones en su día delegadas en la Sra. Telleria Echeverria.

Eibarren emana, 2016ko otsailaren 4an

Dado en Eibar a 4 de febrero de 2016.

ALKATEAK, Miguel de los Toyos Nazabal.”

EL ALCALDE, Miguel de los Toyos Nazabal.”

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu

El Pleno se da por enterado.

da.

Ondoren, bidalitako udal akordioak jaso dituztela adierazten jaso diren ondoko hartu-agiri hauen berri eman da:

Seguidamente se da cuenta de los siguientes acuses de recibo de acuerdos municipales:

- Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren hartu-agiria, 2015eko abenduaren 1eko Udal Osoko bilkurak NANa Eibarren egiteko hartu zuen akordiorena.

- Acuse de recibo del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco del acuerdo de pleno municipal de 1 de diciembre de 2015 sobre expedición del DNI en Eibar.

- Eusko Legebiltzarraren hartu-agiria, 2015eko abenduaren 1eko Udal Osoko bilkurak NANa Eibarren egiteko hartu zuen akordiorena, akordio hura legebiltzarreko Talde guztiei helarazi zaiela jakinarazten.

- Acuse de recibo del Parlamento Vasco del acuerdo de pleno municipal de 1 de diciembre de 2015 sobre expedición del DNI en Eibar, y remisión del mismo a los grupos parlamentarios.

- Senatuaren hartu-agiria, 2015eko abenduaren 1eko Udal Osoko bilkurak NANa Eibarren egiteko hartu zuen akordiorena, akordio hura legebiltzarreko Talde guztietako bozeramaileei helarazi zaiela jakinarazten.

- Acuse de recibo del Senado del acuerdo de pleno municipal de 1 de diciembre de 2015 sobre expedición del DNI en Eibar y traslado a los portavoces de los grupos parlamentarios.

- Senatuaren hartu-agiria, 2015eko abenduaren 1eko Udal Osoko bilkurak Guardia Zibilaren kuartelak hartzen duen tokia libre uzteko hartu zuen akordiorena, akordio hura legebiltzarreko Talde guztie-

- Acuse de recibo del Senado del acuerdo de pleno municipal de 1 de diciembre de 2015 sobre liberación del espacio ocupado por el puesto de la Guardia Civil y traslado a los portavoces de los grupos

tako bozeramaileei helarazi zaiela jakinarazten.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. ATALA

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordetik.

1.- Eibarko hirian ibilgailuen aparkamendu denbora mugatua arautzeko Ordenantzaren aldaketa.

Honako diktamen hau irakurri da:

"Trafiko Batzordeak egin duen proposamenaren berri eman da, "Ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantza Arauemailea" aldatzeari buruzkoa.

Proposamen horretan azaltzen denez, ordutegi arautuko leku berriak sartzean oinarritzen da aldaketa, hain zuzen ere hauek: San Juan kalearen ezkerreko aldeko aparkalekuak –DO-BI norantza– eta Bidebarrieta kaleko ezkerreko aldeko aparkalekuak –BI-DO norantza–.

Aldi berean, proposatutako aldaketak bere gain hartzen dituen Ordenantzaren Testu Bategina aurkeztu da.

Mendicute jaunak dio Trafiko Batzordeak

parlamentarios.

El Pleno se da por enterado.

PUNTO 3º

De la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales.

1.- Modificación de la Ordenanza Reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar.

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Se da cuenta de la propuesta de la Comisión de Tráfico de modificación de la Ordenanza reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar.

En dicha propuesta se explica que la modificación consiste básicamente en la inclusión de nuevas zonas con regulación horaria, que serán los estacionamientos del lado izquierdo de San Juan kalea –sentido SS-BI- y los estacionamientos del lado izquierdo de Bidebarrieta kalea –sentido BI-SS-.

Asimismo se presenta Texto Refundido de la Ordenanza, en la que se introducen las modificaciones propuestas.

El Sr. Mendicute afirma que su Grupo

aztertu dezala bere Taldeak kale horietako alde bietan aparkalekuak mugatzeko eta egoiliarrei txartelak banatzeko egiten duen proposamena. Bestalde, aldaketa-proposamen hau Errebaleko Proiektua amaitu arte egitea dagoela pentsatuta, baina beraien iritziz, dio, denbora-mugatuko aparkalekuak ezartzeko asmoak azterketa sakonago bat egitea eskatzen du, zein eremu edo aldetan aplikatuko litzatekeen aztertuta.

Alkate jaunak dio ez dela hau proposamen hori egiten den lehenengo aldia, baina, edozein modutan ere, ez dela Erakunde gaietako Batzorde honi dagokiona. Hala ere, bera prest dagoela egiten diren proposamenak aztertzera.

Botaziora eraman eta bertaratutako jaun/andreek aldeko botoa eman diote; Mendicute jauna, Ibañez andrea eta García-Antón jauna abstenitu egin dira. Horren aurrean, Erakunde, Lege eta Lurralde gaietako Lan Batzordeak ondoko erabaki hau hartzeko proposamena egiten dio Udalbatzari:

AURRENA: Hasierako onespena ematea Ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantza Arauemailearen testu aldaketari; eta hasierako onespena ematea baita Ordenantza horren Testu Bateginari ere, Trafiko Batzorde Aholkulariak bidalitakoa.

Bigarrena: Toki Araubidearen Oinarriak

